Sin./Fdo.: LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA - 2024-02-08
EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE
Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2024-02-15
AHALDUN NAGUSIA
DIPUTADO/A GENERAL

Akordioa/Acuerdo: DF 00016/2024 - Data/Fecha: 2024-02-15
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2024-02-15
GZko 13.gaia onartuta - Aprobado, asunto 13) de OD

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Bizkaiko Foru Aldundiaren FORU DEKRETUA. Honen bidez, 2024ko ekitaldirako «Ertibil-Bizkaia» Ikus-arteen Erakusketa Ibiltarirako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena.

DECRETO FORAL, de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria destinada a la Muestra Itinerante de Artes Visuales "Ertibil-Bizkaia" para el ejercicio 2024.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, besteak beste, kultura sustatzea eta arte-sorkuntza babestea helburu duen kultura-politika bat planteatzen du, sariak emanez eta ikusizko arteen erakusketa ibiltari bat antolatuz.

El Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia plantea una política cultural que tiene entre otros objetivos el de promover la cultura y apoyar la creación artística mediante la concesión de premios y organización de una muestra itinerante de artes visuales.

Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat diru-laguntza lerro ditu urtero, helburu horiek garatzeko asmoz.

Para ello la Diputación Foral de Bizkaia cuenta anualmente con una serie de líneas subvencionales que tienen el propósito de desarrollar dichos objetivos.

Azken eremu horri erantzuten dio deialdi honek, Bizkaiko artisten sormen-ekimenak sustatzera zuzendua euren karreraren lehen etapan, euren obrak erakusteko, beste artista gazte batzuekin konektatzeko eta ibilbide profesionala garatzeko urrats berriak emateko aukera eskainiz. Horrek, gainera, bere sormen-jarduerarako eta ikusizko arteen eremuan sustatzeko pizgarria dakar.

A este último ámbito responde la presente convocatoria, dirigida a apoyar las iniciativas creativas de las personas artistas de Bizkaia en la primera etapa de su carrera, ofreciéndoles la oportunidad de exhibir sus obras, conectarse con otros y otras artistas jóvenes y dar nuevos pasos para desarrollar su carrera profesional. Ello supone, además, un estímulo a su actividad creativa y a su promoción en el ámbito de las artes visuales.

Proposatutako xedapen orokorraren gaiaren gaineko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako

La competencia sobre la materia objeto de la disposición de carácter general propuesta corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, tal y como se deduce de lo dispuesto en la Ley

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9Q84-W51L-C03S-0QT5
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Foruzko Jardute-Erakundeen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean xedatutakotik ondoriozta daitekeenez. Lege horren 7.a)12 artikuluak eskumen esklusiboa esleitzen die azken horiei, besteak beste, artxiboen, liburutegien, museoen eta liburutegiekin zerikusia duten erakundeen arloan. Lurraldearen titulartasuneko arteak eta artisautza.

27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, que atribuye en su artículo 7.a)12 a estos últimos competencia exclusiva, entre otras, en materia de Archivos, Bibliotecas, Museos e Instituciones relacionadas con las Bellas Artes y Artesanía de titularidad del Territorio Histórico.

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak, zeinak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen, sail honi ematen dio Bizkaiko Lurralde Historikoko talentu artistikoa sustatzeko eskumena.

En este sentido, el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 131/2020, de 29 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte atribuye a este Departamento la competencia para promover el talento artístico del Territorio Histórico de Bizkaia.

Emandako sarien izaera kontuan hartuta, deialdi hau Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 4. xedapen gehigarrian aurreikusitako araubide bereziaren mende dago.

Atendiendo al carácter de los premios otorgados, esta convocatoria queda sometida al régimen especial previsto en la Disposición Adicional 4ª de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Era berean, xedapen hau izapidetzean printzipio hauen arabera jarduten da: premia eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, azkartasuna eta efizientzia, bai eta erregulazio onaren printzipioei datxezkien kontuak ematea ere, eta hori guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Azkenik, maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretua betetzen da, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

Asimismo, en la tramitación de esta disposición se actúa de acuerdo con los principios de necesidad y eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia, celeridad y eficiencia, así como el de rendición de cuentas inherentes a los principios de buena regulación y ello de acuerdo con lo establecido en artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones generales en la Diputación Foral de Bizkaia, y a lo establecido en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que aborda iguales principios con carácter general. Finalmente, se cumple con lo establecido en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9Q84-W51L-C03S-0QT5
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Beste alde batetik, aurrerapen ekonomiko eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakumeen eta gizonen berdintasuna benetan eta eraginkortasunez lortzeko bidean aurrera egitea eta ondore horretarako urte asko daramatza arlo horretan lanean. Ildo horretatik, dekretu honek genero-ikuspegia txertatzen du, bai hura lantzean, bai aplikatzean, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan adierazten den bezala. Era berean, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Dekretu horren bidez, generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira.

Por otra parte, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando ese campo. En esta línea, este decreto incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres y en la Norma foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género.

Azkenik, adierazi behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, dekretu hau prestatzean txosten hauek eman direla:

Cabe señalar finalmente que, atendiendo a lo dispuesto en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, en la elaboración del presente decreto se han emitido los siguientes informes:

1. Genero-eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa.

1. Evaluación Preliminar del Impacto de Género.

2. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren txosten juridikoa.

2. Informe jurídico del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

3. Generoaren Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioari buruzko txostena.

3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.

4. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.

4. Informe de control económico.

5. Legezkotasunari buruzko txostena.

5. Informe de legalidad.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren

El artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9Q84-W51L-C03S-0QT5
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikuluak ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailetako gaiei buruzko foru dekretuen proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikuluak ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikuluak aukera ematen du diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea, egintza bakarrean.

Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, señala que compete a los Diputados Forales proponer a la Diputación Foral, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su Departamento; el artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de su concesión, y el artículo 41.1 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones, correspondiendo al Consejo de Gobierno su aprobación en un sólo acto.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak azterturik, honako hau

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia,

XEDATZEN DUT

DISPONGO

Artikulu bakarra. *«Ertibil-Bizkaia» Ikus-arteen Erakusketa Ibiltarirako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.*

Foru Dekretu honen bidez, 2024ko ekitaldirako «Ertibil-Bizkaia» Ikus-arteen Erakusketa Ibiltarirako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira.

Artículo único. *Aprobación de las bases y de la convocatoria de la Muestra Itinerante de Artes Visuales "Ertibil-Bizkaia".*

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, destinada a la Muestra Itinerante de Artes Visuales "Ertibil-Bizkaia" para el ejercicio 2024.

## Azken xedapenak

Azken xedapenetako lehenengoa. *Erregelamendu bidez garatzeko gaikuntza.*

1. Gaitu egiten da Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua, Foru Dekretu honetan xedatutakoa garatu, gauzatu eta aplikatzeko

## Disposiciones finales

Disposición final primera. *Habilitación para el desarrollo reglamentario.*

1. Se habilita a la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9Q84-W51L-C03S-0QT5
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

behar diren xedapen guztiak eman ditzan. Gaikuntza horren barruan sartzen da dagozkion sariak ematea.

2. Halaber, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari ahalmena ematen zaio eskaerak aurkezteko epea luzatzeko, baldin eta dagokion sistemaren edo aplikazioaren ohiko funtzionamendua eragozten duen gorabehera teknikoren bat gertatzen bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan aurreikusia.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea*.

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral. Esta habilitación incluye la concesión de los premios pertinentes.

2. Asimismo, se habilita a la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte para acordar la ampliación del plazo de presentación de solicitudes, en el caso de incidencia técnica que imposibilite el funcionamiento ordinario del sistema o aplicación correspondiente, previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor*.

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el “Boletín Oficial de Bizkaia”.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua / La Diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte. LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA

Ahaldun Nagusia / La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9Q84-W51L-C03S-0QT5
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2024KO EKITALDIRAKO "ERTIBIL-BIZKAIA" IKUSIZKO ARTEEN ERAKUSKETA IBILTARIRAKO OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA.

BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DESTINADA A LA MUESTRA ITINERANTE DE ARTES VISUALES "ERTIBIL-BIZKAIA" PARA EL EJERCICIO 2024.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. oinarria. *Deialdiaren xedea*.

1. Deialdi honen helburua da 2024ko deialdirako «Ertibil-Bizkaia» Ikus-arteen Erakusketa Ibiltarirako obrak aukeratzea eta Bizkaian sortzen ari diren artistei sariak ematea; honako modalitate hauek sartzen dira deialdian: pintura, eskultura, grabatua, argazkigintza eta bideo-artea.

Bideo-artearen modalitatean, gehienez 15 minutu iraungo du.

Horren bidez, Bizkaiko artistei lagundu nahi zaie beren ibilbidearen lehen etapan, beren obrak erakusteko, beste artista gazte batzuekin konektatzeko eta beren ibilbide profesionala garatzeko urrats berriak emateko aukera eskainiz.

2. Erakusketa horren bitartez gehienez ere 18 artelan erakutsiko dira, aurreko modalitate horietako guztiak batuta, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalerritan.

3. Foru dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira honako hauek:

a) Instalazio bat osatzen duten artelanak.

b) Argazkigintza modalitatean ez dira onartuko euskarri zurrunean aurkezten ez diren eta edozein material gardenekin (plastikoa izan ezik) babestuta ez daukaten lanak.

TÍTULO I

Disposiciones generales

Base 1. *Objeto de la convocatoria.*

1. El objeto de esta convocatoria pública consiste en la concesión de premios a artistas emergentes de Bizkaia y la selección de obras que formen parte de la Muestra Itinerante de Artes Visuales “Ertibil-Bizkaia”, que abarca las modalidades de pintura, escultura, grabado, fotografía y videoarte durante el ejercicio correspondiente al año 2024.

En la modalidad de videoarte la duración máxima permitida será de 15 minutos.

Con ello se busca apoyar a artistas de Bizkaia en la primera etapa de su carrera, ofreciéndoles la oportunidad de exhibir sus obras, conectarse con diferentes artistas jóvenes y dar nuevos pasos para desarrollar su carrera profesional.

2. Dicha muestra consistirá en una exposición de un máximo de 18 obras de arte en su conjunto y entre las modalidades anteriormente citadas que serán expuestas por diferentes municipios de la Comunidad Autónoma Vasca.

3. Quedarán excluidas del ámbito de aplicación del presente decreto foral:

a) Las obras que constituyan instalaciones.

b) En la modalidad de fotografía, aquellas obras que no sean presentadas en soporte rígido y que no estén protegidas con cualquier tipo de material transparente (excepto plástico).

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9Q84-W51L-C03S-0QT5
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

c) Sexua dela-eta diskriminazioren bat adierazten duten lanak.

c) Aquellas obras que expresen discriminación alguna por razón de sexo.

4. Parte hartzaileek askatasun osoa izango dute gai eta ikus-kontzeptuei dagokienez. Hala ere, erakusketa ibiltaria izanik, epaimahaiak obra batzuk baztertu ditzake: hauskorrak izan daitezkeen artelanak edo, euren izaeragatik, udalerriz udalerri eramateko arazoak sor ditzaketenak.

4. Las personas participantes gozarán de plena libertad en cuanto a temática y conceptos visuales, si bien, debido al carácter itinerante de la exposición, el tribunal podrá descartar aquellas obras que no reúnan garantías de consistencia o cuyo traslado por los municipios seleccionados sea problemático por su naturaleza.

2. oinarria. *Onuradunak*.

Base 2. Personas b*eneficiarias*.

1. Honako hauek eskatu ahalko dute euren obrak erakusketa honen barruan sartzeko: maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako egoeretako batean egon ez, eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

1. Podrán solicitar la inclusión de sus obras en la Muestra, a título individual, aquellas personas que, no estando incursas en las circunstancias del art. 12 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, reúnan los siguientes requisitos:

a) 2023ko urtarrilaren 1etik dekretu hau argitaratzen den egunera arte, Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein udalerritan etenik gabe erroldatuta egotea, edo, bestela, 2023/2024 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatean matrikulaturik egotea, dela 1.1 oinarrian aipatutako ikus-arteen modalitateetako edozeinetan, dela fakultate horretan eskaintzen diren ikas-mailetan (masterrak, graduondokoak, doktoregoak).

a) Bien, estar empadronadas en cualquiera de los municipios del Territorio Histórico de Bizkaia, de forma ininterrumpida desde el 1 de enero de 2023 hasta el día de la publicación del presente decreto, o bien, estar matriculadas en la Facultad de Bellas Artes de la Universidad del País Vasco durante el curso escolar 2023/2024 en cualquiera de las modalidades de las Artes Visuales citadas en la base 1.1 o cualquiera de las enseñanzas que en ésa se imparten (master, postgrados y doctorados).

b) Adina: 1989. urtean edo urte horren ondoren jaio izana.

b) Edad: Haber nacido en el año 1989 o siguientes.

2. Beren lanak Erakusketan sartzeko eskatu ahal izango dute taldeek edo kolektiboek, kide baten bidez. Kasu horretan, taldea edo kolektiboa osatzen duten pertsona guztiek aurreko baldintzak bete beharko dituzte.

2. Podrán solicitar la inclusión de sus obras en la Muestra grupos o colectivos a través de uno o una de sus integrantes. En este caso, todas las personas que conforman el grupo o colectivo deberán cumplir con los anteriores requisitos.

3. Foru dekretu honen bidez arautzutako deialditik kanpo geratuko dira pertsona hauek:

3. Quedarán excluidas de la convocatoria regulada por el presente decreto foral:

a) Erakusketa honetako Lehen Sari Berezia aurreko hiru deialdietako edozeinetan lortu duten pertsonak, hau da, 2021, 2022 eta 2023ko deialdietan.

a) Las personas que hayan obtenido el Primer Premio Especial de esta Muestra en cualquiera de las tres convocatorias de ediciones

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9Q84-W51L-C03S-0QT5
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

inmediatamente precedentes, esto es, en las convocatorias de 2021, 2022 y 2023.

b) Aurreko bi deialdietako edozeinetan, hau da, 2022an eta 2023an, erakusketa honetako bigarren sari berezia lortu duten pertsonak.

b) Las personas que hayan obtenido el Segundo Premio Especial de esta Muestra en cualquiera de las dos convocatorias de ediciones precedentes, es decir, 2022 y 2023.

c) 2023ko deialdian erakusketa honetako hirugarren sari berezia lortu duten pertsonak.

c) Las personas que hayan obtenido el Tercer Premio Especial de esta Muestra en la convocatoria de 2023.

d) Berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik administrazio-bidean, lan-arloan edo zigor-arloan zehapen irmoa izan duten pertsonak, eta honako arau hauetan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituztenak ere: Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak III. tituluan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan.

d) Las personas que hayan sido sancionadas en firme en vía administrativa, laboral o penal por vulneración del derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo, así como quienes incumplan las obligaciones establecidas en el Título III del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, o en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres o en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

## II. TITULUA

## Araubide juridikoa

3. oinarria. *Aplikatu beharreko araudia*.

Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamendua, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide

## TÍTULO II

## Régimen jurídico

Base 3. *Normativa aplicable*.

Para todos aquellos aspectos no previstos en el presente decreto foral serán aplicables la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9Q84-W51L-C03S-0QT5
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena, 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duena eta beste edozein xedapen arauemaile, berak duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica, el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

4. oinarria. *Arau-hausteak eta zehapenak.*

Base 4. *Infracciones y sanciones.*

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. titulua ere.

En lo referente a infracciones y sanciones se aplicará lo establecido en el título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y en el título IV de su reglamento de desarrollo.

## III. TITULUA

## Prozedura

## TÍTULO III

## Procedimiento

5. oinarria. *Eskabideak aurkezteko lekua eta epea.*

Base 5. *Lugar y plazo de presentación de las solicitudes.*

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.3 artikuluaren arabera, eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira:

https://www.ebizkaia.eus/es/hasiera

2. Obra Basauriko Elkartegian bertan (Cervantes etorbidea 49 - 33. modulua) entregatuko da.

Egoitza elektronikoko izapideen katalogoan dago foru-dekretu honen laburpen-fitxa.

3. Hona eskabideak aurkezteko epea:

1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las solicitudes deberán presentarse a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:

https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

2. La obra se entregará presencialmente en el Elkartegi de Basauri (sito en Avenida Cervantes, 49 - módulo 33).

En el catálogo de trámites de la sede electrónica se encuentra la ficha resumen del presente decreto foral.

3. Los plazos serán los siguientes:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9Q84-W51L-C03S-0QT5
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

a) Eskabidea eta dokumentazioen epea: 2023ko otsailaren 21etik martxoaren 1eko 13:30era.

b) Artelana: 2024ko martxoaren 18, 19, 20 eta 21ean, 9:30etatik 13:00era, Basauriko Elkartegian (Cervantes etorbidea 49 - 33. modulua).

Antolaketa-arrazoiengatik, obrak entregatzeko ordena bat ezarri ahal izango da, aurretiko hitzorduaren sistema baten bidez.

4. Parte-hartzaile edo kolektibo bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du. Lanok markoa edo listoia behar bezala jarrita aurkeztu beharko dira, salbu eta paretan ezarri behar ez direnak jendearen ikusgai egoteko.

Eskabide bat baino gehiago aurkeztuz gero, egindako azkena joko da baliozkotzat.

5. Adingabeen eskabideak haien guraso-ahala edo legezko ordezkaritza duten pertsonek egingo dituzte. Ondorio guztietarako, azken horiek izango dira —eta ez adingabeak— jasotako kopuru ekonomikoaren onuradunak. Nolanahi ere, 2. oinarrian ezarritako betekizunak pertsona adingabeari dagozkio.

6. Adingabeak sariaren onuradun izango dira baldin eta adin-nagusitasuna lortzen badute sariaren ordainketa egin aurretik.

7. Talde edo kolektibo bati buruzko eskaerak horretarako izendatutako kide batek egin beharko ditu. Ondorio guztietarako, azken hori izango da jasotako kopuru ekonomikoaren onuraduna.

6. oinarria. *Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta betekizunak.*

a) Plazo para la presentación de solicitud y documentación: desde el 21 de febrero de 2024 hasta las 13:30 del 1 de marzo de 2024.

b) Plazo para la entrega de la obra: los días 18, 19, 20 y 21 de marzo de 2024 en horario de 9:30 a 13:00 en Elkartegi de Basauri (sito en Avenida Cervantes, 49 - módulo 33).

Por razones de organización se podrá establecer un orden de entrega de las obras a través de un sistema de cita previa.

4. Cada persona participante o colectivo solamente podrá presentar una única obra. Esta deberá estar debidamente enmarcada con marco o listón, salvo en el caso de aquellas que para ser visionadas por el público no requieran ser expuestas sobre pared.

En caso de presentar más de una solicitud se considerará como válida la última realizada.

5. Las solicitudes relativas a personas menores de edad deberán hacerlas quienes ejerzan la patria potestad u ostenten su representación legal. A todos los efectos serán éstas, y no las personas menores, las beneficiarias de la cantidad económica percibida. En cualquier caso, los requisitos señalados en la base 2 se referirán a la persona menor de edad.

6. La persona menor en el tiempo de la solicitud que alcanzase la mayoría de edad antes del pago del premio, será la beneficiaria del mismo.

7. Las solicitudes relativas a un grupo o colectivo deberá hacerlas una persona integrante del mismo designada para ello. A todos los efectos será ésta la beneficiaria de la cantidad económica percibida.

Base 6. *Documentación a acompañar a la solicitud y requisitos.*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9Q84-W51L-C03S-0QT5
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

1. Eskabideak aurkezteko, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan bete eta aurkezteko dauden eredu ofizialak erabili behar dira:

https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera

2. Eskabideekin batera, honako eguneratu agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Hala badagokio, Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako Fakultateak emandako ziurtagiria, interesduna bertan 2023/2024 ikasturtean matrikulatuta dagoela egiaztatzen duena.

b) Aurkeztutako artelanen argazkia.

c) Legezko edo borondatezko ordezkaritza zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatu beharko da.

3. Halaber, obrari buruzko datu espezifikoak bete beharko dira egoitzan eskuragarri dagoen deskribapen-fitxan: Obraren izenburua (eskaera egin ondoren ezin izango da aldatu), teknika, neurriak eta balorazioa.

Talde edo kolektibo bat ordezkatuz diharduten pertsonen kasuan, dagozkion datuak bete beharko dira.

7. oinarria. *Dokumentazio egiaztagarria.*

Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilita, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek interesdunei, haien ordezkariei eta, hala badagokio, saria ordaintzeko izapideak egin baino lehen adin nagusitasunera iristen den adingabeari buruz dituzten datuak, dekretu honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, interesdunak modu espresuan kontra dagoela

1. Las solicitudes deberán, de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015, ajustarse a los modelos oficiales disponibles para su cumplimentación y presentación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:

https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

2. Las solicitudes deberán ir acompañadas de la siguiente documentación actualizada:

a) En su caso, certificación expedida por la Facultad de Bellas Artes de la Universidad del País Vasco acreditativa de que la interesada se encuentra matriculada en la misma en el curso 2023/2024.

b) Fotografía de obra presentada.

c) La representación, legal o voluntaria, deberá acreditarse por cualquier medio válido en derecho.

3. Asimismo, deberán cumplimentarse los datos específicos de la obra en la ficha descriptiva disponible en sede: título de la obra (no podrá ser cambiado una vez realizada la solicitud), técnica, medidas y valoración.

Para el caso de personas que actúan en representación de un grupo o colectivo, deberán cumplimentarse los datos correspondientes.

Base 7. *Documentación verificable.*

El Servicio de Acción Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, mediante los sistemas de Intermediación de datos disponibles, a través del Nodo de interoperabilidad de Bizkaia, realizará las comprobaciones y consultas pertinentes de los datos de las interesadas, sus representantes y, en su caso, del menor de edad que alcance la mayoría de edad antes de la tramitación del pago del premio, que resulten necesarias para la tramitación administrativa del presente decreto que obren en poder de las

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9Q84-W51L-C03S-0QT5
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

adierazten ez badu. Kontra egonez gero, behar diren dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Datu horiek honako hauek dira:

a) Eskatzailearen eta, hala badagokio, adingabearen identitateari buruzko datuak.

b) Banku kontuaren titulartasun datuak.

Eskatzaileak uko egiten badio administrazioak bere bitartekoak erabiliz bankuko datuak egiaztatzeari, kasu horietan bakarrik, banku-helbideratzearen fitxa behar bezala beteta aurkeztu beharko da.

c) Hala badagokio, Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein udalerritan erroldatuta egotearen ziurtagiria, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera etenik gabe.

d) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

e) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Kultur Ekintzako Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Datu pertsonalak eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorriz.

Administraciones Públicas, salvo oposición expresa de las mismas, en cuyo caso, deberán aportarse los documentos correspondientes.

Los referidos datos son:

a) Los datos de identidad de la solicitante, y en su caso, de la persona menor.

b) Los datos de titularidad de la cuenta bancaria.

En caso de que la solicitante se oponga a que esta Administración compruebe dichos datos bancarios por sus propios medios, deberá aportarse ficha de domiciliación bancaria debidamente cumplimentada.

c) En su caso, certificado de estar empadronada en cualquiera de los municipios del Territorio Histórico de Bizkaia de forma ininterrumpida desde el 1 de enero de 2023.

d) Certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias.

e) Certificado de estar al corriente de las obligaciones con la Seguridad Social.

En todo caso, si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible, el Servicio de Acción Cultural podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación.

Cualquier acceso a los datos personales se realizará de conformidad con lo previsto al respecto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y su normativa de desarrollo, así como en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9Q84-W51L-C03S-0QT5
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

8. oinarria. *Eskabideak zuzentzea eta hobetzea*.

Base 8. *Subsanación o mejora de las solicitudes.*

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, eskabidearekin batera foru dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada edo obra aurkeztu ez badu 5.3.b) oinarriaren arabera, errekerimendua egingo zaio eskatzaileari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan beharrezko agiriak aurkeztu ditzan edo akatsa zuzendu dezan. Era berean, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

1. Si las solicitudes no se formalizaran completamente, faltara alguno de los documentos exigidos por el presente decreto foral o no se presentara la obra conforme a la base 5.3.b), se requerirá a la solicitante para que en el plazo de diez (10) días hábiles acompañe los documentos preceptivos o subsane la falta, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

2. Edonola ere, Kultur Ekintzako Zerbitzuak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du, aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko.

2. En todo caso, el Servicio de Acción Cultural podrá solicitar cuanta información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de las solicitudes presentadas.

9. oinarria. *Diru-laguntzak emateko araubidea*.

Base 9. *Régimen de concesión.*

Norgehiagoka sistemaren bidez erabakiko da zer artelan aukeratu «Ertibil-Bizkaia 2024» Ikus-arteen Erakusketa Ibiltarirako eta nori eman saria, hau da, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da, aurkeztutako eskabideak alderatuko dituena. Horien artean lehentasun-ordena ezarriko da foru dekretu horietako 10. oinarrian ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta. Ondoren, epaimahaiak hiru sari berezien adjudikazioa eta erakusketa osatuko duten 15 artelanak proposatuko ditu, kontuan hartuta dagokion aurrekontuko partidan izendatutako diru-kopurua muga dela.

